

Udan,
negu bila



drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 182. alea 2010eko iraila



**Zeure.
neurrikoa**

2010 - 2011
IKASTURTEA

HELBURUAK

Moduluak: euskalduntzea, alfabetatzea, HABEko 1., 2. eta 3. maila, EGA, Hizkuntza Eskakizunak.

HARREMANAK

16 urtetik gorakoentzat.

ERRITMOAK

Astean 8 ordu (egunean 2 ordu), astelehenetik ostegunera.
Kurtsoaren iraupena: urritik ekainera.
Talde bereziak

Diru-laguntzak

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga eraikina. Goienkale z/g, 2. solairua
Tel. eta Faxa

943 17 09 25

euskaltegia@udalermua.net



Ermuko eguneroko albisteak eta hauek komentatzeko aukera


Ermuko agenda kultural osoa

Hileroko lehiaketa: Sari bereziak!

Drogeteniturre aldizkaria, pdf-an

Inkesta

...



*Ermunik eta sarean
euskaraz ere bagara!*



www.euskalbirusa.org

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)

247 posta-kutxa
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 93 50.

drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu eta
Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIAK:

Andrés Luengo eta Aritz
Gómez, Artarraiko
lehiaketaren irabazleak.

LAGUNTZAILEAK:

Patxi López,
Valentin Mugarza,
Asier Ibaibarriaga eta
Fede Iturriagagoitia.

ARGAZKIAK:

Seafóid, Valentin Mugarza,
Eneritz Aranburu, Irune
Martínez, Berbalagun,
Estibalitz González,
Debabarrena, Dakota,
Artarraiko eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Irune Martínez
eta Ane Loiola.

TIRADA:

2.200 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

‘Pink-pink’ ‘pink-pink’ soinuaren jabea txori polita da eta arrak, handiagoa denak, kolore biziagoak ditu. Aldran ibiltzea gustatzen zaio, gutxitan dabil bakarrik eta hegan egiteko bere modua berezia da benetan: zuzen joan beharrean, airean olatuak baleude bezala doa. Surfista trebeagorik! Ermua zein Mallabiko errekondu, ortu eta zelaietan ikusterik badago, gertu xamar gainera, metro gutxira mantso-mantso egoten daki-eta. Fruitu eta koko-jale honek, purgatzeko-edo, belar puntak mokokatzen ditu, bazkalosteko infusio gisa. Bertakotuta 8-10 bat bikote egongo dira, neguan ere hementxe geratzen direnak, Afrikara bidean azaro-abendu aldean pasean doazen milakei agur-agur esan eta kitto!

Paranda Txonta

Pinzón vulgar Fringilla coelebs



Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO4	KIROLZALE17
Zipriziintzen	Artarrariko II. argazki lehiaketa
ELKARRIZKETA5-7	IRITZIA18
Seafóid	Udarak ekarri duena
MALLABIAN ZER?8-9	SALEROSKETAK19
Itsaso Pradera	Saldu, erosi edo agurtu
ERREPORTAJEA10-11	ANTZINAKOAK.....20
Gure uda auzolandegi batean	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN.....12-13	KALEKO INKESTA21
Berbalagun, martxan	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
ERMUAN ZER?14-15	AGENDA22
Motor-jaia	Urriko agenda
BOTEPRONTOA16	

Maite Rivero

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zipriztintzen

Berdintasunaren aldeko Ermuko gizon talde hau duela bi urte sortu zen, Emakumearen Etxeak antolatutako 'Maskulinitasuna eta sexualitate ez zapaltzaileak' deituriko ikastaroa burutu eta gero. Aurten ekintza berriak martxan ipintzeko asmoa dute.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

2008ko ekainaren 19an sortu zen taldea.

- Zenbat kide zarete?

Taldea 12 edo 15 lagun ingururen artean sortu genuen. Bi urte hauetan bajak egon dira eta 5 lagunek eramaten dugu orain pisu gehiena, aktibista gisa. Gainontzekoak 'satelite' moduan egiten dute lana, beharrezkoa denean edota ahal dutenean.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Hasieran talde gisa lana egiten hastea zen gure helburua: berdintasunean formatu, kontzientzia hartu eta gure buruarekin lan egin, batez ere. Aurten, berriz, hiru ildo nagusi jorratzeko asmoa dugu. Alde batetik, gure burua prestatzen jarraituko dugu; bestetik, herriko jendeari gure lana ezagutaraziko diogu hainbat ekintzen bidez; eta azkenik, Emakumearen Etxean biltzen diren beste talde batzuekin ekintza-aren bat antolatzea gustatuko litzaiguke.

- Zertan oinarrituko dira ekintza horiek?

Jendeari begira antolatuko ditugun ekintzak, esaterako, etxeko lanak, 'mikromatxismoak' (edo matxismo berriak) eta aitatasun-mota berriak izango dituzte ardatz. Hauek tailer, ikastaro edota 'olinpiaden' bitartez landuko ditugu. Jendeak gu ezagutzea nahi dugu. Hau ez da talde itxia, interesa duen guztiak parte har dezake, eta ekimen hauek hori adierazteko erabiliko ditugu.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?



Hamabostean behin biltzen gara, astelehenetan, 18.30etan, Emakumearen Etxean.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Helbide elektronikoa honetara idatzi dezakete: zipriztintzen@gmail.com. Horretaz gain bloga dugu: nodo50.org/ermualibertario da helbidea eta bertan Zipriztintzen atalera jo. Horretaz gain, interesa duenak Emakumearen Etxean eskatu dezake informazioa.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOGEGIA CERYECERIA
NHEV

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78



Seafóid:

“Gure historia oso arin pasatu da, eromena izan da”

Duela urtebete elkartzen hasi ziren Seafóid taldeko kideak, Johnny Kinnaird musikari irlandarra kontzertu batean ezagutu ostean. Hiru hilabete pasatu eta gero, maketa grabatu zuten eta dagoeneko eurek sortutako 16 abesti jotzen dituzte, guzti-guztiak Johnnyk idatzitakoak. Pop-rock fusioa jorratzen dute, eta ia 12 musika-instrumentu ezberdin jotzen dituzte euren kontzertuetan. Urriaren 16an London tabernan eskainiko dute saioa, 23.30ean, lehen kontzertua eman zuten leku berean.

elkarrizketa

- Taldea berria izan arren, musikarekin kontaktua zenuten aurretik?

(Seafóid) Bai, bost lagunek osatzen dugu Seafóid eta lau Flipin Folk taldetik gatzoz. Flipin Folk desegin zen, bi kidek laga zutelako, eta kide berriak bilatzen hasi beharrean, beste talde bat eratzea pentsatu genuen. Estiloa aldatu genuen sasoi berri bati hasiera emateko, eta hobera egin dugula esango genuke, duda barik. Gure soinua fintzen ari gara oraindik ere, baina aurrera goaz, primeran!

- Nola ezagutu zenuten Johnny?

(S) Kontzertu batean elkar ezagutu genuen. Johnnyren taldeak eta Flipin Folkek leku berean jo behar genuen eta, berbetan hasi ginen.

- Musikaria zen Johnny baita ere?

(Johnny) Bai, Irlandako musika tradizionala jotzen zuen Laudioko talde batean nengoen, irlandarra bainaiz eta duela bi urte etorri nintzen Euskal Herrira. Taldeak ez zuen musika oso serio hartzen. Horregatik, Flipin Folkekoek eurekin jotzera gonbidatu nindutenean ez nuen zalantzarik izan.

- Eta orain taldeko ezinbesteko zati bihurtu zara?

(J.) Abesti originalak abestea gustatzen zitzaidalako komentatu nien, nik neuk sortutakoak, eta gaur egun



jotzen dugun musika dena nik sortutakoa da. Lan handia egin dugu lehen urte honetan eta dagoeneko 16 abesti ditugu. Tartean Paulinok idatzitako bi abesti instrumental ere badaude.

- Zeri buruz egiten dute berba abestiek?

(J.) Bizitzari buruz. Bidaia, bizipenak, ametsak... nire bizipenak. Momentuz abestirik ezagunena 'Underground train' da, eta horrek Euskal Herrira etortzean sentitu nituen emozioei buruz hitz egiten du.

- Talderen baten eragina duzue?

(J.) Abesti guztiak dira ezberdinak musika asko daukadalako buruan, baina Pink Floyd, Led Zeppelin edota Pearl Jamek eragina dute

gure abestietan.

- Ingelese abesten duzue?

(J.) Bai, baina abestu aurretik abestiak zeri buruz hitz egiten duen azaltzen dut.

- Nondik hartu duzue Seafóid izena?

(J.) Gaélicotik dator, eroa esan nahi du. Gure historia ere oso eroa izan da, oso arin pasatu da dena.

- Zeintzuk osatzen duzue taldea eta zer jotzen du bakoitzak?

(S) Jorgek baxua jotzen du, Victorrek teklatura, Pauk akordeoia, mandolina eta bouzoukia, Iñakik Irlandako gaita, bateria eta flauta eta Johnnyk baxua, gitara elektrikoa eta akustikoa. Taldea guztiz finkatzen denean, 12 musika-tresna ezberdin joko ditugu.

- Kontzertu biziak egingo dituzue orduan?

(S) Bai, hori da gure asmoa. Ohiko kontzertuetan 2 gitara, baxua, bateria eta abeslaria dago, baina guk zerbait ezberdina egiten du-

gu. Kontzertuetan instrumentu bat hartu, beste bat laga... hori jendeari asko gustatzen zaio.

- Nola definituko zenukete zuen musika?

(J.) Pop-rock fusioa egiten dugula esan dezakegu. Abesti guztiek folk eta zelta oinarria edo ukituak dituzte eta horiek funk, jazz, pop eta rockarekin nahasten ditugu. Mandolinak eta akordeoia ukitu berezia ematen diete abestiei.

- Aurretik elkar ezagutzeak lana erraztu dizue?

(S) Bai, asko. Badakigu bakoitzak nola jotzen duen eta bakoitzaren akatsak zeintzuk diren.

- Dagoeneko maketa duzue?

(S) Bai, baina elkartu eta handik 2 edo 3 hilabetera grabatu genuen, taldeko baten etxean. Orain grabatuko bagenu, askoz hobea izango litzateke.

- Asko entsetzen duzue?

(S) Gure muga Johnny da,

“Abestiek bizitzari eta bizipen pertsonalei buruz hitz egiten dute”

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19 48260 ERMUA
Telefona 943 17 22 43 (Bizkaia)

Bilbon bizi delako, baina astean behin edo entseatzeko dugu. Gainontzekoak batzuetan elkarrekin entseatzeko dugu gure kabuz.

- Non entseatzeko duzue?

(S) Eibarko Legarreko lokalean. Egia esan nahiko txikia da, beste bi talderekin konpartitu behar dugulako eta musika-instrumentu pila ditugulako. Guk lokal handia behar dugu!

- Zenbat kontzertu egin dituzue orain arte?

(S) London tabernan jo genuen aurrenekoz, gero Gernikan, Bilboko Aste Nagusian, Trespadernen..., 7 gutxi gora behera.

- Eboluziorik sumatu duzue?

(S) Bai, argi eta garbi. Gernikan jo genuenean esaterako, lau abesti besterik ez genituen menperatzen. Azken kontzertua, berriz, Bilboko Cotton Club-ean izan zen eta bete egin genuen. Gure soinua izugarri hobetu da.

- Eta nola lortzen da kontzertuak lotzen joatea?

(J.) Ni profesional moduan jotzen egon naiz eta mundu honetan mugitzen ohituta nago. Ez da beldurrik izan behar, leku guztietara joan behar da, leku guztietan muturra sartu.

- Aurrerantzean zein asmo

dituzue?

(S) Diskoa kaleratzea da gure nahia, ahal dugunean. Gainera Irlandatik kontzertu bira bat egiteko asmoa dugu. Ez dakigu datorren urtean posible izango den, baina bestela hurrengoan egingo dugu, seguru. Bilboko jaietan jo dugunez, han jende askok ikusi gintuen eta datorren urterako Avilésen dagoen jaialdi handi batera gonbidatu gaituzte, agian Portugalera ere

“Ez ditugu 18 urte eta badakigu zer nahi dugun”

joango gara..., baina hori lotu barik daukagu oraindik.

- Serio hartu duzue orduan?

(S) Ez ditugu 18 urte eta ia guztiak ibili gara beste talde batzuetan eta badakigu zer nahi dugun. Gure mugak ditugu, batzuk seme-alabak, gainontzekoak lana... Gure asmoa ez da musika jotzetik bizitzea oso zaila delako, baina album bat edo bi kaleratzea gustatuko litzaiguke.

- Zer behar da diskoa grabatzeko?

(S) Dirua, besterik ez. Orain Danbaca lehiaketan parte hartuko dugu eta saria, diskoa grabatzea da. Ea zortea dugun!

- Urriaren 16an Londonen joko duzue. Txiki geratuko zaizue, agian?

(S) Izan daiteke, baina lehen kontzertua bertan eman genuen eta laguntzen zaituen jendea ezin duzu ahaztu.

Seafóiden abestiak entzuteko www.myspace.com/seafoid helbidera jo daiteke. Maketak, berriz, London tabernan daude salgai.

Dorleta Vidal



ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martín)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

PUB YOMY

**Zubiaurre
 kalearen
 bihotzean**

komunitateak
 aseguruak
San Pelayo
 aholkularitza
 fiskal eta juridikoa
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**solozabal
 tabakoak**
 torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33


Pub SCORPIO

 Zubiaurre, 21
ERMUA

KALBARIO KALEKO URBANIZAZIO LANAK MARTXAN

Irailean sartu orduko Kalbario kaleko urbanizazio lanekin ekin deutse Udalak ikasturte barri honi. Bertan zolua, hodi-terria eta espaloiak barriztatzeaz gain, argi indarraren instalazioa lurpetik sartuko da, jesarleku eta abar aldatu eta behin betiko egingo da urteerarik bako kale. Bertara kotxez sartu ahal izango diran bakarrak kale horretako biztanleak izango dira. Lanak Abadiñoko 'Lasuen' enpresak burutuko ditu eta 246.151€ko aurrekontuaz adjudikatuak izan dira. Aitor Loiola alkatearen esanetan, Kalbarioko lan honek egiteko, bertan eraikiko diren etxebizitzak barrixen eraikuntzaren zain egon dira, "etxe berri hauek egin baino lehen ez zuelako me-rezi urbanizatzen hastea". Baina gaur egungo krisi ekonomikoak, eraikuntza alorreko krisiak eta etxe eskaria murrizteak, proiektu hori atzeratzea ekarri dau, baina Kalbario urbanizatzeko lan honek "beharrezkoak ziren, ezin ziren gehiago atzeratu". Barriztatze lanak abenduan amaituta egotea aurreikusten da.

DONAGARAI-EGIA-ASUNTZA BASOPISTA AMAITZEAR

Trabakutik Urko mendira paraje eder eta paregabien zabal-tzen dan baso pista honek, bost kilometro t'erdi daukez eta Bizkaiko Foru Aldundiak diruaren %75 ipini dau. Bertan bil-tzen dira 200ha baso-lur baino gehixago, 'insignis' pinuek okupatzen dabena gehixen bat. Aitor Loiola alkatiaren esanetan, "bertako lurjabeiek egurre ataratzeko zelako arazoak eukiezan ikusitxe eta beste arrazoi batzuk zirela-eta ekin eutsen Udalak proiektu honi". Lau urte honetan bertako lurjabeiek eta udalak hainbat batzar burutu ondoren, 2009ko martxuen lortu zan Bizkaiko Basogintza Elkartiek Donagarai-Asuntza-Egia basopistaren proiektue aurrera ataratzie. Ondoren, 2009ko irailien "arazo ezberdinak zirela medio eta hauek saihestu nahiean", hasierako proiektuak aldaketa batzuk izan zituen eta proiektu definitiboa aurkeztu zan. Bertako lurjabeiek elkarte bat osatu dabe eta elkarte hau izengo da udalaren laguntzarekin basopista hori kudeatuko dabena. Hasiera baten 200.000€ aurrekontue bazeukan be, uste baino merkia-go atarako da. 'Ekin' enpresa izen da lanak egin dittune. Maiatzien hasi eta irailaren azkenetan biherrok amaitute egongo direla aurreikusten da.

ORRAITTIOK ANTOLATUTAKO MENDI IBILALDIA HERRIKO ITTURRIK EZAGUTZEKO

Irairearen 25ien egin zan Orraittiok antolatutako laugarren



Mendi Ibilaldia. Gure herriko inguruek, kultura eta ondasuna ezagutu eta ezagutuaraztea dau helburu aurten laugarrenez antolatu dan ibilaldi honek. Herriko itturriek ezagutzeko parada izen eben bertaratu zirenek, oraingo honetan. Goizeko 9xetan Mallabiko petrilien urten eta 10 iturri ezagutzeko aukerie euki ebien. Egune biribiltzeko, Goittako Zumarra elkartien babajana egin ebien.

EUSKALDUNEN HIZKUNTZA ESKUBIDIEN DEFENTSAK KUTXAK UDALETXEAN

Kexak jasotzeko, proposamenak egiteko edota jarrerak txalotzeko erabiliko dira kutxa honek, Mallabixen eta Atxondon ipini barri dabiez. 2008ko maiatzien Behatokiak eta UEMAK sinatutako hitzarmenari tresnak emote aldera ipini dira Udaletxien eta Liburutegixen. Hizkuntz eskubidiek, norbanako eskubide diren heinien, Nazioarteko ehunka legetan, EAEko 10/1982 Legean eta Nafarroako 18/1986 Foru Legean jasotzen dira. Berez legiotan eskubidiok jasotzen badira be, urraketaren bat gertatuta, hiztunen eskubidiek bermatzeko mekanismo lez jaixo da egitasmo hau. Edozein kexa, proposamen eta abar kutxan sartuta, UEMAK espedientea zabalduko deutse bakoitzari eta Behatokira bideratuko dau, gestionatu eta kexa ipini dabena erantzuna emongo deuselarik. UEMAKo herrietan "euskaldunen aurkako urraketak besteak baino larriagoak dira" erakunde honen esanetan. UEMAKo herrietan euskaldunek %70etik gora direlako eta euskeraz bizitzeko apustue egin daben udalerrixek diren aldetik, "herri borondatearen aurkako eraso delako".

ANDRA MARI JAIETAKO PAELLA LEHIAKETA

Berano Txiki auzoak irabazi zuen aurtengo Andra Mari jaietako paella lehiaketa. Hemen euren argazkia:





FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

Drogeteniituri, 182 zkia.

943172665 ERMUA



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona

Itsaso Pradera, Munduko Txapeldua Nesken Paleta Goma modalitatean:

“Pala-eskolak ugeritzen doiez eta neska banakaren batek urtetzen badau, ba edarto!”

Laura Saez Arzamendi eta Ane Isasmendirekin batera abiatu zuen Itsaso pasa dan uztailaren 22xen Ameriketaruntz. Aurten Boisen jokatu da nesken munduko paleta goma txapelketa, bost urtetik behin han egiten dan Jaialdi famatuaren barruen. Ez dabe hutsik egin: txapela ekarri dau etxera Josu Oleagak entrenatzen daben hirukotiek.

- Zenbatgarrenez munduko txapeldun?

Aurten hirugarren txapela irabazi dogu. Urte bakoxtien leku baten egin da txapelketa eta aurten Idahon izan gara. Lehenengo urtien San Franciscon jokatu zuen, frontoi eta han txapela eskratu gendun. Txilen, trinketien jokatu gendun eta laugarren egin gendun. Argentinan bai frontoi eta baitte trinketien jokatu gendun, eta lehenenguen txapela eta bigarrenien azpitxapeldun egin gendun. Boisen frontoi jokatu dogu eta hu-

rrengo trinketeko txapelkete Abadiñon egingo da urrian 11tik 17re.

- Ikusten denez bixetan ondo. Baina zer da hobeto zuentzat, frontoie edo trincketie?

Guk hobeto jokatzen dogu frontoien, ohittuago gagoz. Euren aldrebes, ohittute dagoz trinketien. Hemen herri bakoxtien frontoi bat dagoen lez, han Euskal Etxe bat dagoen lekuen trinkete bat dago, edo gehixenetan bai behintzet.

- Zenbat bikotek hartu dozue parte Boisen?



Estatubatuarrak bikote bi ziren, Venezuelako, Argentinako eta Australiako bana eta Euskal Herritik hirukotie. Anek, Laura eta nik txandaka jokatzen gendun. Ligilla lez jokatu gendun, danok danon kontra eta lehenengo sailkatzen zana zuzenien pasatzen zuen finale. Gure taldie izen zuen lehenengo finalista. Bigarren eta hirugarren postuen gelditu zirenek jokatu eben

semifinala eta finala argentinaren kontra irabazi gendun.

- Etorkizune zelan ikusten dozu?

Pala eskolak ugeritzen doiez Euskal Herrixen, Mallabixen bertan 14 bat neska entrenatzen dittut 8 eta 13 urte bittartekuek. Danek ez dabe urtengo, baina banakaren batek urtetzen badau, ba edarto!

Eneritz Aranburu

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MUGA

KALONIA

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua,
plater konbinatuak, bokatak,
pintxoak, kazolak...

*Bazkari eta afariak
parrillan (enkarguz):
txuletak, arraina...

Enkarguak:
943 174 952
(asteartetan itxita)

IAKADEMIA

ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

IZOTZ

IZOZTUAK

ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

Gure uda Graçay-ko auzolandegian

Irune Martfnez eta Eider Espinazo ermuarrek Eusko Jaurlaritzak udaro antolatzen dituen auzolandegietan parte hartu dute aurten.

Parisetik ordu bira dagoen Graçay herrian aritu dira borondatezko lana egiten, harresi baten eraikuntzan, hain zuzen ere. Esperientzia errepikatzeko modukoa izan da eta jarraian Irunek kontatutakoa:

Hendaian hartu genuen Eiderrek eta biok Pariserako tren-uztailaren 31n. Gure auzolandegia abuztuaren 4ra arte ez zen martxan jarri eta 4 egun horiek Paris ikusteko aprobetxatu genituen. Bisita turistikoa egin genuen: Eiffel dorrea, Notre Dame, Montmartreko Bihotz Sakratua..., derrigorrean bisitatu behar diren tokiak, eta egun bat Disneylanden pasatu genuen.

Paris oso polita da, baina oso garestia, baita ere. Horregatik gazteentzako ostatu batean egin genuen lo eta janari ia guztia Ermutik eramanez.

Graçay-ra bidaia

Abuztuaren 4an, trenera berriro igo eta Orleanse-rantz jo genuen. Bi orduko bidaia egin eta gero, Orleansen beste tren bat hartu eta Vierzonera heldu ginen, Graçaytik oso hurbil. Han auzolandegikoak genituen zain eta kotxe batean eramanez gintuzten Graçayko kanpinera.

Normalean herriek eskatzen dituzte auzolandegi hauek. Eurek ostatua eta mantenua ordaintzen dituzte eta gazteok bertarainoko bidaiaz eta gainontzeko gure gastuez arduratzen gara.

Niretzat auzolandegia ez da esperientzia berria izan.



lax, Ermuko beste lagun batekin joan nintzen Holandako auzolandegi batera eta bertan zaldi-lasterketa baterako hipodromoa prestatu, zalditegiak garbitu eta horrelako kontuetan ibili ginen lanean 12 egunez. Baina bertako giroak ez zuen aurtengoarekin zerikusirik. Auzolandegiak 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat dira. Nik 20 urte ditut eta Eiderrek 19, eta Holandan zegoen jendea gu baino askoz nagusiagoa zen. Aurten, berriaz, 18 eta 23 urte bitartekoak izan dira gure lankide guztiak. Orotara, 12 lagun eta 2 lider egon gara, eta oso giro polita sortu da.

Gure lana

Graçayk mila biztanle pa-

satxo ditu eta 22 egun eman ditugu bertan, abuztuaren 4tik 26ra bitartean. Gure betebeharra zera izan da: XIII. mendean eraikitako harresia berriro altxatzea. Prozesu hau 2007an hasi zen eta gure aurretik beste talde batzuk egon dira lanean. Gure taldea, aldiz, azkena zen eta harresia bukatuta lagatzea zen gure helburua. Heldu ginenean, harriz eta lurrez estalirik zegoen harresia garbitu behar izan genuen, ondo finkatu barik zeuden harriak atera genituen, urarekin garbitu eta harresia berreraiki.

Nahiz eta hasieran 3 orduko lanaldiak izan, bukaeran 6 ordukoak egiten genituen, harresia garaiz bukatu ahal izateko. Eta lan egiteko, 6

“Harresi bat berreraiki behar genuen, 6 metroko altuera zuen aldamiara igota”



Drogeteniituri, 182 zkoa.



metroko altuera zuen aldamioren igo behar ginen: egia esan hasieran pixka bat bel-durgarria zen!

Batzuetan lan gogorra egiten genuela esan daiteke. Pikotxarekin ibiltzen ginen, aldamiotan igota, bero itzelarekin... Gainera betaurrekoak, aurpegi-babesa, eskularruak eta kaskoa erabili behar izaten genuen. Baina nik, egia esan, ez nituen erabiltzen, horrela ezin nuen lanik egin-eta!

Bizitza

Kanpin-dendetan egiten genuen lo, binaka edo hirunaka. A ze nolako maleta handiak eraman genituen Eiderrek eta biok! Ez ziren inon sartzen! Eta gainera maletan generamatzen gauden erdia ez dugu ezta erabili ere egin!

Lotarako kanpin-dendez

gain, sukaldea zuen beste handi bat zegoen. Gure bi liderretako batek 'etxeko' kontuak antolatzen zituen eta besteak gurekin egiten zuen lan. Kanpinean gertzen zenak janaria erosten zuen eta gu arduratzen ginen hori prestatzeaz.

Lan hori txandaka egiten genuen. Bi taldetan banatu gintuzten, bat goizeko 7.00etan joaten zen lanera eta etortzerakoan bazkaria prestatu eta harrikoa egiten zuen. Bigarren taldekoek, 10.30etatik 13.30era egiten zuten lana eta afaria prestatu eta jasotzeaz arduratzen ziren, eta astero txandakaldatzen joaten ginen.

Lankideak

Eider eta biok talde berean hasi ginen lanean, baina jendea ezagutzen joan ginen heinean, talde ezberdineta-

“Lana egiteaz gain, kultura ezberdinak batzea dute helburu auzolandegiek”

ra joan ginen. Horrek jende gehiago ezagutzeko aukera ematen dizu, eta oso gustura egon gara biok, errepikatze moduan.

Gure auzolandegian Guinea, Turkia eta Txekiar Errepublikako lagun bana, Korea eta Taiwaneko bina eta Frantziako 6 neska-mutil egon dira. Hogeita lau ordu pasatzen genituen elkarrekin, udaleku moduko zerbait da. Gure arteko harremana oso ona izan da. Gainera hizkuntzarekin ez dugu izan inongo arazorik. Frantsesek gaztelera zekiten eta gaintzakoekin ingelesez egiten genuen berba. Hasieran

apur bat kostatu zitzaigun ingelesez egiten hastea, baina lehen egunetako lotsa pasatu arte izan zen. Gainera, herri ezberdinetako janariak probatu eta prestatzen ikasteko aukera ezin hobea izan dugu. Eiderrek eta biok denetarik probatu dugu. Tartean begetariano bat eta musulman bat egon dira eta batzuetan eurentzat beste janari bat prestatzen genuen, baina inongo arazo barik.

Aisialdia

Lana astelehenetik ostiralera egiten genuen bakarrik eta asteburua libre izaten genuen. Herrikoek hiru txango antolatu zizkiguten eta ondoko herrietara autobusez joaten ginen. Lane-gunetako arratsaldeak ere libre izaten genituen: igerilekura edo supermerkatuara joan, janaria erosi edota jokoak egiten ematen genuen denbora.

Alde honek ere auzolandegietan pisu handia duela esango nuke. Hau da, helburu bikoitza duela esango nuke: lana egiteaz gain, kultura ezberdinak batzea da kontua eta ingelesez praktikatzeko aukera ezin hobea ematen dizu. Datoren urtean ere, ahal badugu, auzolandegian pasatuko dugu uda!

Irune Martínez
eta Dorleta Vidal



OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera getan zabaltzen dugu

mari
asun 

LORADENDA

Diputación, 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**EUSKAL BIRUSAK
KOORDINATZAILEA
BEHAR DU**

Euskal Birusa Elkarteko Kulturalak koordinatzailea behar du. Astean 20 orduko lanaldi kontratua eskaintzen da. Koordinatzaile-lanpostura aurkeztuko direnentzat ezinbestekoa da euskal hitzunik izatea. Horretaz gain, ermuarra izatea, euskalgintzaren ezagutza izatea eta ekimetsua izatea baloratuko da. Interesa dutenek euskalbirusa@euskalnet.net helbide elektronikora edota Ermuko 247 posta-kutxara bidali beharko dute curriculumak. Curriculumak jasotzeko azken eguna urriaren 11 da.

**HAINBAT IKASTARO
LOBIANO
KULTURGUNEAN**

Udazkenarekin batera Lobiano Kulturgunek flamenco, reflexoterapia eta eskularen tailerak martxan jarriko ditu. Flamenco-ko irakaslea Lidia Pousa izango da eta honek urriaren 7tik abenduaren 2ra bitartean emango ditu klaseak ostegunero, 19.00etatik 21.00etara. Matrikulak 27 euroko prezioa du (18 euro langabetu, ikasle eta Gazte Txartela dutenentzat). Eskulan ikastaroan beira landuko da eta astelehenetan emango dira klaseak, aurreko ikastaroko prezio eta ordutegi berean. Reflexoterapia tailerra, berriz, martitzenetan burutuko da eta 15 euroko prezioa izango du (10 euro, aurretik aipatutako kasuetan). Izena emateko Lobiano Kulturgunera joan daiteke, 9.00 eta 21.00ak bitartean.

Uni Eibar-Ermuko ikasleak Izarran

Enpresak Prestatu eta Sustatzeko Izarra zentroa bisitatu zuten Uni Eibar-Ermuko ikasleek irailaren 22an. Bisita horretan, Administrazio eta Finantzak zikloaren barruan dagoen 'Enpresa proiektuak' moduluko ikasleek hartu zuten parte. Duela aste gutxi berriro den Izarra zentroan, UrratsBat proiektuaren barnean sortutako Teknotag enpresa ikusteko aukera izan zuten bisitariek. Jarraian, Izarrako zuzendaria den Jesús Portugalek instalazioak erakutsi zizkien eta Berrikuntza Tailerrean parte hartu zuten ikasleek, Jordi Lorenzo eta Nerea Izagirrekin.

**Debabarreneko II. BTT martxa, urriaren 12an**

Debabarreneko II. BTT Martxa urriaren 12an egingo da, Debabarreneko BTT Zentroan. Parte-hartzaileek bi ibilbide dituzte aukeran, 25 eta 45 kilometroko luzerakoak eta irteera 9.00etan izango da. Aurrez izena emateko epea dagoeneko zabalik dago eta urriaren 5ean itxiko dute. www.debabarrenaturismo.com webgunean lasterketaren informazio osoa ikus daiteke (ibilbideak, araudiak, sariak...) eta izena emateko bete behar den galdetegia ere bertan deskargatu daiteke. Federatuek 12 euro ordaindu beharko dute parte hartu ahal izateko eta gainerakoek 15 euro. Parte-hartzaile guztiek kamiseta bat jasoko dute opari bezala eta gainera bazkariak, afariak, asteburuetarako egonaldiak, bisita gidatuak, itsasontzian irteerak, produktu gastronomikoak eta spa-rako sarreraren zozketan parte hartuko dute, besteak beste. Martxa hau era guztietako zaleei zuzenduta dago, Debegeako arduradunek diotenez, eta bere helburua Debabarreneko BTT Zentroa eta eskualdeko BTT ibilbideak eza-gutzera ematea da.

**3.600 euro banatuko ditu aurten 'Kameratoiak'**

Aurtengo 'Kameratoia' (edo Euskal Herriko Ikusentzunezkoen Rallya) Ermuan egingo da. Lehiaketa urriaren 30ean hasiko da eta azaroaren 6an sari banaketa egingo da. Interesa dutenek www.kameratoia.com helbidean aurki ditzakete lehiaketaren oinarriak eta aurreko edizioetako lanak, besteak beste. Horrez gain, izena eman nahi dutenek webgunearen bidez egin dezakete urriaren 7a baino lehen. Aurreko edizioetan bezala, hiru sari izango dira lanik onenentzat: 1.500, 1.200 eta 900 eurokoak. Lehiaketaren helburua gazte euskaldunen sormena bultzatzea da eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak eta Ermuko Udalak antolatuko dute, Ermuko Euskal Birusa Euskara Elkartearen eta EitBren laguntzarekin eta Eusko Jaurlaritzaren zein Bizkaiko Foru Aldundiaren Gazteria Zuzendaritzaren babesarekin.



ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGAÑA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

T XALAPARTA
ABERNA

**Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua)

**ENKARGYAK
943 030 299**

Urriaren 1ean ekingo zaio aurtengo Berbalagunerri



'Atera arbela kalera' da ikasturte berri honetarako Berbalagun egitasmoak aukeratu duen leloa, Ermuko Udalarekin ekinean elkarlanerako hitzarmena sinatu eta gero. Edizio honek euskara ikasi edota ikasten diharduten horiek animatu nahi ditu, ikasitakoa kalean eta etxean ere erabil dezaten. "Horrek ez du esan nahi Berbalagun proiektuak euskara ikasleak soilik hartzen dituenik -dio Juanmi Bravok, egitasmoaren koordinatzaileak-. Berbalagun euskarren praktika bultzatzen duen egitasmo orokorra da, horrenbestez, euskaldun guztiak, euskara ikasle, euskaldun-berri eta euskaldun-zaharrak hartzen ditu". Aurtengo helburuen artean iazko parte hartzaile kopurua, inoiz egon den handiena izan zena, 75 lagunekoa gainditzea da. Horrez gain, 'zalantza dantza' deituriko zerbitzua martxan ipiniko da. Horri

esker berbalagun-kideek euren euskara zalantzak Internetez galdetu ahal izango dituzte. Berbalagunen izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko 943171940 telefonora deitu daiteke edo ermua_berba@aek.org helbidera mezua bidali.

Ermua Merkataritza Guneak 2.000€ banatuko ditu



Ermuko Merkataritza eta Ostalarien Elkarteak 5, 10, 20 eta 50 euroko erosketa-txartelak banatuko ditu abenduaren 15era arte 'Ermua Txartela'rekin erosketak ordaintzen dituztenen artean. Guztira 2.000 euro banatuko dira eta sariak 'Ermua Txartela'ri atxikitako edozein saltokitan trukatu ahal izango da 2010eko abenduaren 31ra arte. Txartela martxoan jarri zen martxan eta dagoeneko herriko 69 dendetan erabil daiteke. Gainera ia 1.500 ermuarrek badute beren txartela poltsikoan. Hauek abantaila handiak dituzte herriko dendetan erosteagatik: %5eko deskontua Hambreko gasolindegian, erosketak 3 hilabeteetan interesik gabe ordaintzeko aukera eta kanpaina berezietan deskontuak lortzeko aukera.

Berrikuntzak kiroldegiko abonatuentzat



Hainbat aldaketaren ondorioz, zerbitzu eta abantaila berriak dituzte kiroldegiko bazkideek dagoeneko. Sauna eta lurrin-bainua doakoa da udatik aurrera eta baita oinarrizko gimnasia sartzeara ere. Honek ez du begiralerik eta 18 urtetik gorakoei erabil dezakete. Era berean, Aritzemendi pilotalekua eta squasheko pista dohainik erabil daitezke ordutegi honetan: 8.00etatik 16.00etara eta 8.30etik 16.30era, hurrenez hurren. Bazkide eta ez bazkideek, gainera, erlaxatzeko espazio termonez,

ludiko eta spa berrira doan sartzeko aukera dute eta Udaleko arduradunek azaldu duteenez, Betiondoko rokodromo berria azaroan egongo da prest.



XVII. JUANITA IBAIBARRIAGA LITERATUR SARIA MARTXAN DA

Euskal Birusa Kultur Elkarteak Juanita Ibaibariaga Literatur Lehiaketaren XVII. edizioa martxan ipini du. Iaz bezala bi modalitate egongo dira. Lehen LHko 3., 4., 5. eta 6. ikasleentzat eta DBHko ikasleei zuzenduta dago eta saria 40 euroko erosketa-txekea da. Bigarrena, 1996. urtean edo lehenago jaiotakoentzat da. Horretan erreportajea jorratuko da eta saria 400 eurokoa da. Lanak Euskal Birusera eraman daitezke (Erdikokale 2, 1.), korreoz bidali (247 PK) edo Udaleko Euskara Sailean utzi.

1.800 IKASLEK EMAN DUTE IZENA ERMUKO IKASTETXEETAN

Ikasturte berri honetan 1.806 neska-mutilek eman dute izena herriko ikastetxeetan, iazko datuekin bat etorritik. Horietatik 570 ikasleek Ikastolan burutuko dute ikasturtea, 492-k Ongarai Eskolan, 355-ek San Pelaio Eskolan, 208-k Eskolabarrin eta 181-ek San Lorentzon. DBHn, berriz, behera egin dute matrikulazioek eta 432 gaztek eman dute izena, iaz baino 20 ikasle gutxiagok.

Proba-Leku
Hezpaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Quetzal
Arropa, bitxiak,
opariak... zer ez!

Goienkale 9 · ERMUA
943170065

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaita
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Aurten ere... Eskerrik asko Txikurizale!!

Eskerrak hartu eta emate kontueetan, sekula ez da beranduegi izaten. Santixauak eta 'Txikurixa' urrundu ziren, baina Euskal Birusa zorretan dago herritar askorekin: Erdikokaleko 'TXIKURIXA' sartu-irten handiko taberna bihurtu zenutenoi, jendearen esanetan "jaietako modako tabernia" izatera arte lortu zenuten belaunaldi guztietako bezero eta laguntzaile guzti-guztioi, **ESKERRIK ASKO! Gure autofinantziaketari bultzadatxo hau emategatik. Laguntzaileen izenak batzen ahalegintxoia egin dugun arren, norbait ahaztu baietz? Katxiiiis! Harek ere eskertuta dauka, nola ez!**



Izagirre sendia, Juan Antonio Izagirre, Unamuno sendia, Nahia Unamuno, Isma Pradera, Alberto Belar, Aitor Moreno, Jhonatan Herrero, Lorea Txapartegi, Elias Uriarte, Irune Mugerza, Lara Alonso, Tamara Lorente, Unai Rodriguez, Nora Mateos, Maialen Agirregomezkorta, Ane Redondo, Maialen Gomez, Aitor Arrizabalaga, Maitane Egido, Aritz Barruetabeña, Eneritz Arriaga, Ainara Riveras, Roge Bouzo, Nahikari Benito, Olatz Gil, Aroia Lejardi, Unai Holguin, Jokin Diez, Ainhoa Cid, Iratxe Allende, Nerea Izagirre, Olatz Mugarza, Iratxe Arrizabalaga, Nora Markos, Txebis Gorritxategi, Idoia Zamakola, Eli Areitioaurtena, Joseinas Larrañaga, Alazne Aiestaran, Andoni Esmeralda, Piedi Eizagirre, Bea Narbaiza, Idoia Narbaiza, Thomas O'Callaghan, Nerea Berriozabal, Felitxo Araiztegi, Eukene Lamariano, Aitor Ogiza, Goiatz Minguez, Arantzi Perosanz, Nora Solozabal, Leire Uribelarrea, Asier Azagirre, Olatz Vidal, Esteban Goikoetxea, Arantza Cañamares, Iñaki Bidosola, Jokin Txapartegi, Jon Bengoetxea, Mikel Zabalo, Ander Carmona, Dani Gutierrez, Oier Araiz-

tegi, Gorka Alzaa, Txomin Espilla, Ramón Espilla, Mila Guenetxea, Teresa Garai, Maria Ormaetxea, Iker Saez de Zaitegi, Julen Berriozabal, Begoña Fernández, Iñaki Delgado, Beñat Delgado, Borja Etxeberría, Julen Garitaonandia, Inazio Fernández, Asier Galdos, Edu Izarra, Mikel Aierbe, Roberto Bilbao, Amaia Orbe, Esti Garcia, Laura Paskual, Ines Arano, Idurre Zuazua, Naiara Gallastegi, Ruben Rivero, Nerea Alvarez, Leire Alvarez, Mari Karmen Urkidi, Miren Astarloa, M^a Nieves Antxustegi, Maritxu Amillategi, Carmen Solozabal, Aintzane Mallea, Pilar Bilbao, Nati Yarza, Berta Yarza, Jose Antonio Unanue, Gaizka Areitioaurtena, Nagore Espilla, Igone Amesti, Estibalitz González, Nerea Izarra, Dorleta Vidal, Ane Saenz, Rosa Jaussi, Asier Ibaibarriaga, Manuel Moreno, Markos Gimeno, Barrenengo baserria, Anittu-goiko baserria, Leku-Eder Elkartea, Quetzal arropadenda, Egondo Elektrizitatea, Aitor Garro, Javier Garro, Eskilarapeko Ateneoa, Infreñu Taberna, Txalaparta Taberna, AEK Kaltxango Euskaltegia, Ermuko Santixau Parrokia, Eibarko Unibertsitatea, Mallabiko Udala eta Ermuko Udala.



DOAN Oinetakoak

SEXTO CENTENARIO, 17 (943) 17 13 44
48260 ERMUA Bizkaia



MUSIKA ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoiaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Pantxike eta Mentxu, Dakotako jabeak:

“Gaur egun ia derrigorrez egin behar dugu motor-jaia”

Urriaren 23an, zapatua, 4. motor-jaia burutuko du Dakota tabernak. Jai honen bidez tabernak bere urteurrena ospatzen du urtero eta aurtengo egitarauaren barruan, Azpeitira ibilbidea motorrez eta bi kontzertu daude.

- Zer dela eta erabaki zenuen motor-jaia antolatzea?

Tabernaren urteurrena ospatzeko hasi ginen honetan. 2005eko urriaren 21ean zabaldu genuen taberna eta urteurrenean bezeroei pintxoak edo pastelak atera beharrean, gertuen dagoen larunbatean jai bat egitea bururatu zitzaigun. Hau gure 5. urtea da tabernan baina 4. jaia ospatuko dugu, 2008an ezin izan genuelako

egin Probaleku obretan baitzegoen.

- Zein da motorrekin duzuen lotura?

Mentxu.: Nik motorra daukat eta Igorreko Moto Club bateko kidea nintzen. Taldeko norbaitek negozio bat martxan ipintzen zuenean, jai bat egiten genuen taldekoentzat. Dakota zabaldu genuenean ezinezkoa zen jai bat egitea eta 1. urteurrena ospatzeko festa egitea pen-



tsatu genuen. Egia esan, hasieran Moto Clubekoentzako jaia eta luncha izan behar zen, besterik ez. Kontua zera izan zen, jende larregi etorri zela (ia 300 motor bildu genituen) eta kontrola galdu genuen. Gaur egun ia derrigorrez antolatu behar dugu motor-jaia: jende pilo bat izaten dugu galdezka horri buruz eta herrian sekulako giroa sortzen da.

- Aurtengo egitaraua prest duzue?

Ez, horretan gabiltza oraindik, baina gauza batzuk argi ditugu. Arratsaldean Azpeitira motorrez joango gara eta gero motorzaleentzako jokoak egingo ditugu. Umeenkin zerbait egiteko asmoa genuen baita ere, baina azkenean ezin izango dugu aurrera atera. Gauean, berriz, bi taldek kontzertua eskaini-

ko digute: The High Light (rock) eta Ronny Cocan Band (blues). Lekua oraindik ez dugu finkatu: gainontzeko tabernek laguntzen badigute plazan egingo dugu, baina bestela gure taberna ondoan ipiniko dugu oholtza. Azkenean, gure kutxatik irteten da jaia antolatzeko behar den diru guztia.

- Pozgarria da motor-jai egunean taberna jendez beteta ikustea?

Bai, eta normalean baino jende gehiago hurbiltzen da gurera, baina ez festa amortizatzeko beste, dirua galtzen dugu eta. Gainera aurretik zoratu egiten gara gauzak prestatzen eta egunean bertan kalean dagoena eta gure tabernako barra kontrolpean izan behar dugu... zoramena!

Dorleta Vidal



★
★
★
BACKSTAGE
6 - 16 URTEKOENTZAKO
ARROPA!
Zubiaurre 30 · Ermua
943 174 576

LONDON
Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

SAGARDUI
bolsos
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

MAITE RIVERO

- *Noiz zabaldu zenuen denda?*

1985eko urriaren hasieran.

- *Lehen eguna gogoan duzu oraindik ere?*

Bai, normala da horrelako gauzak gogoratzea. Oso pozik nengoen, ilusioz beteta. Urduri nengoen ez nekielako zer gertatuko zen, baina pozez zorutzen nengoen.

- *Dendetan esperientzia zenuen aurretik?*

Bai, janari-denda batean egon nintzen lanean.

- *Zergatik mertzeria bat?*

Momentu horretan herriak horren falta zuela sumatu nuelako. Botoiak erosteko leku bat.

- *Eta zergatitik arrosa?*

Asko gustatzen zait arrosa kolorea, granatearekin konbinatuta, esaterako.

- *Dendaren izena 'Maite Gauzak' da, baina 'denda arrosa' deitzen dio jendeak...*

Bai, eta harro nago, gustatzen zait.

- *Zaila da gaur egun denda batek 25 urte betetzea?*

Zailena hasierakoa izan zen, lehen urteak, indar handia behar delako denda aurrera atera ahal izateko.



Maite Rivero Eibarko amaetxe zaharrea jaio zen duela 51 urte, baina betidanik Ermuan bizi izan da. Lau anai-arreben artean bigarrena da eta bi semearen ama da. 1985ean Kardinal Orbe plazan dagoen denda arrosa zabaldu zuen eta aurten dendaren 25. urteurrena ospatuko du.

Hala ere, denboraldi bakoitza ezberdina da, uda eta negu bakoitza diferentek dira.

- *Zer eskaintzen duzue?*

Tratu pertsonalizatua oso garrantzitsua da eta kalitate handiko gauzak ditugu. Ho-

rretaz gain, ilusioa eta poza ipintzen dugu egiten dugun gauza bakoitzean. Betiko bezeroak ditugu, baina gazteak ere gurera etortzen dira.

- *Zer irakatsi dizu lan honek?*

Gauza asko, jendearekin tratua izaten, esaterako.

- *Nolakoa da bezeroa?*

Orokorrean zer nahi duten badakite, baina guk laguntzea eskertzen dute.

- *Zer egiten duzu denbora librean?*

Irakurri, denbora dudanean liburuak irensten ditut.

- *Irakurri duzun azkena?*

'Las manos de mi madre'. Orain beste bat daukat eskuartean, eta horrekin bukatzen dudanean, Zafón-en bigarrena irakurriko dut, 'El juego del ángel'.

- *Zinea gustuko duzu?*

Bai, baina azkenaldian ez naiz joan. Zinema berria zabaltzeko desiratzen nago.

- *Udan denda itxi duzu?*

Zabalik izaten ahalegintzen naiz, zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko. Hala ere, 10 egun gordetzen ditut beti familiarekin hortik zehar edo amaren herrira joateko.

Dorleta Vidal



www.joyeriasenen.com / joyeriasenen@gmail.com

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com



Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE

Yoga eskola



* Arnasketa.
* Ariketa fisiko egokiak...

San Roke 24, behea · 943748593
685722131 (Idoia) 639652729 (Lourdes)

Andrés Luengok irabazi du Artarrai M.T.-ko II. argazki lehiaketa

Artarrai Mendi Taldeak 'II. Lau Haizetara' argazki lehiaketa antolatu du uda honetan. Guztira 70 argazki baino gehiago jaso dira, mundu osoko txoko ezberdinetan ateratakoak, eta saridunak Andrés Luengo eta Aritz Gómez izan dira, hile honetako azalean, hain zuzen ere.

Mont Blanc, Sierra Nevada, Karakorum, Pirinioak, Irlandako Kerry Way, Senegal, Dolomitak, Urko, Atxarte... hamaika lekutan ateratako argazkiak jaso ditu Artarrai Mendi Taldeak 'II. Artarrai Lau Haizetara' argazki lehiaketan.

Argazki guztiak taldeko kideek oporretan egindakoak dira. "Hilero hainbat irteera antolatzen du Artarraik, baina abuztuan ez da ekintzarik egoten. Hori dela eta, argaz-

ki lehiaketa hau martxan ipintzea erabaki genuen iaz -dio Koldo Aranberriak, taldeko arduradun nagusiak-. *Honi esker, mendia bizi izatea bultzatu nahi da eta taldekiek non izan diren jakiteko aukera ematen du, gainontzeko kideek hurrengo irteerarako ideiak har ditzaten, esaterako".*

Lehiaketan bi sari daude eta argazkilaritzan aditua den pertsona batek egiten ditu epaile lanak. Aurten Santos Vega argazkilaria izan



Nagore: Aiguille du Midi, Chamonix.

da epaile eta honek Andrés Luengok Alpeetan ateratako argazkia saritzea erabaki du. Argazkiak Mont Blanc-eko Arista Bosses erakusten du eta honi esker Andrések 70 euroko erosketa-txekea jasoko du mendirako materialean.

Bigarren saria, 50 euroko erosketa-txekea, Aritz Gómezek irabazi du,

Italiako Dolomitetan ateratako argazkiari esker.

3.000 bisita


Antolatzaileak oso pozik daude izan den parte-hartzaile kopuruarekin, "iazko parte-hartzaile kopuruarekin alderatuta %10 eta %15 artean igo delako", dio Koldok. Horretaz gain, Artarrairen blogean "3.000 bisita baino gehiago izan ditugu lehiaketa dela-eta, eta horrek giroa sortzen du, oso pozgarria da".

Andrés Luengoren argazkiak, mendi taldeak urte hasieran salgai jartzen duen egutegiaren abuztua hilabetea ilustratuko du. Hala ere, lehiaketan parte hartu duten argazki guztiak ikusi nahi duenak, Artarrai Mendi Taldeko blogera jo dezake: artarraiblogspot.com helbidean.

Dorleta Vidal



Isabel: Senegaleko haitzuloa.



Ramón: Drytooling, Cantabria.

blush
Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42

NATURHOUSE
NUTRICION Y DIETETICA

"Adituak gara ondo elikatzen irakasten"

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea
943 17 63 72

DULCE BEBÉ PEQUE'S

0 eta 4 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

dulce bebé

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005

Udarak ekarri duena

KUBA eta FIDEL

Kuban izan naiz oporretan abuztuan. Sistema sozialista eroriko denaren beldurrez edo, Fidel hil baino lehen behintzat Kubara joan nahi nuen. Leku ederra benetan. 3 astetan ikusten duzunak ez dizu inongo zilegitasunik ematen han gerta daitekeenaz, baina sistema ongi errotua dagoela dirudi, jarraipena bermatua balego bezala. Sozialismoa bai, baina poliziaren zaintza estuarekin mantendutako sozialismoa.

Jendea sistemaren alde eta aurka, denetako iritziak entzuten dira. Komunikabideak erabat letrrotuta daude agintearekin, beraz ez da beste ahotsen argudioirik entzuten. Fidel Castro, azken urteak gaixo egon ostean, milaka ikasleren aurrean eman duen lehen hitzaldia zuzenean ikusteko eta entzuteko parada izan dut. Ordu t'erdi eskas, urruti gelditu dira garai bateko 8 eta 10 orduko hitzaldi luze haiek.

C(Z)INEMALDIA

Opor ostean urteroko zita du zineak Donostiako Zinemaldiarekin. 58. edizioa aurtengoa eta beste behin ere, euskaldun kutsu gutxirekin. Ezin da ukatu Donostia munduan zehar ezagun egiten

duela eta sos dezente uzten duen jaialdia izango dela, baina euskarak eta euskaldun nortasunak oso leku txikia duela. Ez dakit gutxitzen ere ez ote doan urtez urte. Diru pribatu gehiena ere ez da hemengoa, euskal zinemagintzak ere egun bakarra du bere. Tamalez, beste urtebetez barkamena eskatu behar izan du Donostia Saria jaso duen aktoreak gazteleraz hitzik ez dakielako.

KONPONBIDEARI BELDURRA

Arazoak denok ditugu. Etxean, lanean, lagunartean eta sarritan nahi ez badugu ere, hortxe daude. Batzuk gure esku, besteak beste batzuen esku baina hortxe. Baina noiz da zerbait arazo?

Arazo diren edo ez hortik hasten da eztabaida. Batentzat arazo dena, beste batentzat ez da horrela. Baina behin arazo bat badela eta horretan adostasuna dagoenean, hurrengo pausoa da, nola aurre egin behar zaion.

Euskal Herrian urteetan daukagun auziaz ere antzeko zerbait gertatzen zaigu. Arazoa den ere ez dakigula gaude urte luzez. Batzuentzat arazoa ere ez denez, ez dago ezer konpontzeko. Beste batzuk, ordea, arazoa badela



**Asier
Ibaibarriaga**

onartzen dute. Arazoa badela onartu ostean, arazoa konpontzeko orduan sortzen dira aldeak, baina.

Azkenaldian eman diren pausoei eta entzuten diren ahotsek poza eta itxaropena sortu didate. Niri behintzat bai. Zain egon beharko da halere. Poza, herri honetan bakea behar dela eta posible dela sinisten dudalako. Ematen diren pausoak nahikoa ote diren, sinesgarritasunik ba ote duten, hortaz ari dira bata eta bestea, baina pozgarria eta zentzu onean datorrela, hori ezingo dit inork ukatu. Eman daitezela eman beharreko pausoak eta uxatu ditzagun arazoa konpontzeko dauden beldurrak!

**Arazoa konpontzeko
orduan sortzen dira aldeak**



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

Ardo banatzailea:

<p>Riedel Avgvstvs Clos Mogador Yllera Cantosán Luis Cañas</p>	<p>Hugel&Fills Anima Negra Trache Cillar de Silos Vriego Laurona</p>
--	--

DISTRIBUCIONES ARRAL
TELEFONOA: 943 17 60 75

LANA

Eguneroko eta betiko edota zeuk gura dituzun janak prestatzen ditut. Etxera eroateko edo zure etxean bertan prestatuta. Sukaldari eta gozogile tituluduna. 676090814. Ainar.

Unibertsitate ikasketak egiten ari den edo dituen irakasle eskalduna behar da arratsaldeetan eskola-laguntza programan klaseak emateko. Curriculumak ongaraibhi.institutua@gmail.com helbidera bidali edota Ongarai BHI ikastetxe-ko Idazkaritzan entregatu lehenbailehen.

Euskal Birusa elkarteak koordinatzailea behar du. Eskaintzen dena: Astean 20 orduko lanaldia kontratuarekin. Ezinbestekoa: Euskal hiztuna izatea. Baloratuko da: ermua-rra izatea, euskalgintzaren ezagutza izatea eta ekimentsua izatea. Interesatuak curriculum-a bidali: euskalbirusa@euskalnet.net. Euskal Birusa elkarte 247 P.K. Ermua 48260. Curriculumak jasotzeko azken eguna, urriaren 11.



Irailak 11
Zorionak guapisima zure 18. urtebetetzean. Ondo pasa zure egunean, asko maite zaitugun zure familiaren partez.



Irailak 15
Zorionak Peru danon partez! Eta Lukenen partez patxo bat!



Irailak 30
Zorionak Ainhoa, 10 urte!!! Musu erraldoi bat Maite, Ama eta Aitaren partez.



Urriak 1
Zorionak Udane!!! Muxu handi-handi bat: Paaaaaa!



Urriak 10
Zorionak Oier zure 8. urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoan partez.




Urriak 7
Zorionak Gorka! Ondo pasa eguna! Musu handi bat denon partez!



Urriak 14
Zorionak!!! Musu handi bat Malen, Jone eta Aitzolen partez. Ondo pasa zure eguna.



Urriak 3
Zorionak Asier!!! Ondo pasa zure 7. urtebetetzea etxeko eta lagunen partez. Txapeldun!!!



Nekane ta Eneko, jaso eixue zuen lagunuen izenian zorion agurrik beruena! Urte askuan holantzek jarraitxu deizuela bihotz bihotzez! Gora ezkonbarrixak!

Hurrengo alerako azken eguna:
URRIAK 18
Elexosteko obrak direla eta, gure behin-behineko helbidea hauxe da: Errebalburu 1, behea. !!

IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen

TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKANTZA BEREZIA OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

MALLABIA 1987



Argazki hau 1987ko apirilaren 4ean aterata dago Loiolan. Jose

Luis Mugarza eta Nekane Salegiren ezkontza egunean. Beraiekin batera daude: Arantxa Gallastegi, Lurdes Iribar, Jose Luis Basterretxea, Jabi Gorostiza, Jesus Olalde, Lauri Garitagoitia, Arrate Arrieta, Jesus Mari Zuazubizkar, Amaia Aranburu, Andres Mazorriaga, Mari Paz Zelaieta, Amaia Pagaldai, Lauri Bastida, Iñaki Bastida, Arritokieta Osa, Itziar Garitagoitia, Lurdes Cid, Roberto Erkiaga, Alberto Gallastegi, Juan Luis Gallastegi, Begoña Osa, Santos Aranburu, Martzel Garitagoitia, Juan Mari Antxia, Isabel Garitagoitia, Pello Mugarza, Migel Angel Agirregomezkorta, Belen Gallastegi, Mari Jose Salegi, Bixente Azagirre, Kristina Arregi, Arantxa Garate, Justo Azagirre, Jose Ziarsolo, Bea Ureta... eta abar.

ERMUA 1952



'Bar Chiqui', Zubiaurren, 'Itze Optika' dagoen lekuan kokatuta zegoen. Bertan 'Paka'ren ultramarinoso egon zen eta gerora Angel Ibarluzeak lehenengo eta Miguel Abarretegik gero, harategia jarri zuten. Erretratorako ipinitakoak, ezkerretik eta tente daudenetik hasita: Ignacio Ezkurdia, Enrique Olañeta, Toribio Maiztegi, Juanito Izarra, Pedro Amillategi, Florencio Vega, Juanito Amillategi, Valentin Areitioaurtena, Francisco Ziarsolo, Cosme Izagirre, Josu Agirregomezkorta, Pedro Lejardi, Luis Araiztegi, Emeterio Intxaurraundieta, Toribio Gisasola, Felix Mugika, Eduardo Amillategi, Eduardo Gisasola, Francisco Zenarruzabeitia, Mariano Goitandia, Pedro Amillategi, Sabino Ziarsolo, Felix Totorika, Mario Cardaño, Jose Luis Cabezon, Eliseo Areitioaurtena, Luis Abarretegi, Isidro Urizar.



Drogeteniiturr, 182 zkia.

0 eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

*Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoa!*

Probaleku 4, Ermua • ☎ 943 033 830



CITROËN AUTOS AMEDI

Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

Irailean ikasturte berriarekin batera, asko eta asko aisialdia nola antolatu pentsatzen hasten dira: kirola egin, hizkuntzak ikasi, ikastaroak... Aukerak ez dira gutxi, baina maiz ez da erraza izaten eguneroko betebeharrak eta aisialdia uztartzea. Zein asmo duzu ikasturte berrirako? Nola antolatuko duzu zure aisialdia?

Urtebetean utzita izan dut eta berriz kirol apur bat egiten hastea nahiko nuke: korrika, mendira joan, bizikletan ibili. Horrez gain, umearekin egoteko denbora hartu eta horretaz gozatzea nahiko nuke.



Juan Fernández. 34 urte. Langilea



Amador Chaver. 33 urte. Langabetua

Gauza mordo bat egingo nuke gustura, baina ikasturte berriari begira bi ditut buruan: bata ingelesa ikatea, ea Hizkuntza Eskolan izena ematen dudana, eta bestea, robot simulazioa lantzen duten ikastaroren batean izena ematea.



Ikasturte berriari medikuntza ikasketak izango dira nire lehentasuna, baina gustatuko litzaidake kirola egitea: aerobic, spinning edo horrelako kirolen batean izena ematea nahiko nuke, gorputza mugitu eta sasoian egoteko.

Sarai Albillos. 24 urte. Ikaslea

Ez dut pentsatu oraindik ikasturte berriari zer egingo dudana aisialdian, baina ez litzateke gaizki egongo gimnasioan izena ematea, sasoian egoteko eta apur bat mugitzeko.



Maite Mugika. 26 urte. Langilea

Pentsatzen ari naiz geriatria laguntzaile izateko ikastaro bat egitea. Nire orain arteko lanean jarraituko dut eta astean egun pare batean ibiltzera joateko denbora hartzea nahiko nuke.



Xurdana Zubia. 34 urte. Langilea



Sergio Iglesias. 19 urte. Ikaslea

Kayak ikastaroa egitea nahiko nuke, baina Aixolan orain ez dago aukerarik eta beste nonbaitera joatea oso garestia da. Beraz, pentsatu dut gidabaimena ateratzea datozen hilabeteetan.

Testua: Alazne Aiestaran

**OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA**

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - beheka

optika

ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

HORTZklinika
nerea iñiguez

San Inazio, 4 ERMUA

UMEENTZAKO ZINEA

- Hilak 3:**
'La niñera mágica y el big bang'
- Hilak 10:**
'Tiana y el sapo'
- Hilak 17:**
'Los niños de Timplebach'
- Hilak 24:**
'Robin Hood'
- Hilak 31:**
'Prince of Persia: las arenas del tiempo'
17.00etan. Lobianon.
Sarrera dohainik.

ZINE-KLUBA (Musika eta zinearen zikloa)

- Hilak 7:**
'Nadie sabe nada de gatos persas'
- Hilak 14:**
'I'm not there'
- Hilak 21:**
'Tommy: the movie'
- Hilak 28:**
'Cruzando el puente: los sonidos de Estambul'
19.00 eta 21.30ean.
Lobianon.
Sarrera dohainik.

MUSIKA

- Hilak 16:**
Blues Kontzertua: Boney Fields Project.
20.00etan. Lobianon.
Sarrera: 5€.
- Hilak 22:**
Kontzertua: Bilboko abesbatza eta ganbara orkestra. 22.15ean.
Santiago elizan.
Sarrera: 5€.
- Hilak 29:**
Kantu emanaldia: 'Zartzuelaren onena'.
Camerata Lírica.
22.15ean. Lobianon.
Sarrera: 5€.
- Hilak 30:**
Ermuan kantuan: kalejira. 12.30ean.
Orbe Kardinalaren plazatik.

ANTZERKIA

- Hilak 8:**
'Más gorditos que nunca', Tangorditos taldea. 22.15ean.
Lobianon.
Sarrera: 5€.
- Hilak 15:**
'Tenemos que hablar', Mostrenko Kolektiboa.
22.15ean. Lobianon.
Sarrera: 5€.

ERAKUSKETAK

- Hilaren 4tik 31ra:**
CNT:
anarkosindikalismoaren 100 urte: panelak, argazkiak, idazkiak, dokumentazioa, ikus-entzuneakoak...
Lanegunetan 18.00etatik 20.00etara.
Asteburuetan 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara. Lobianon.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

- Hilak 2:**
Haurrentzako ipuin-kontakteta. 17.30ean. Liburutegian.
- Hilak 9:**
Haurrentzako antzerkia: 'Chiqui chico', Nía Konpania.
17.00etan. Lobianon.
Sarrera: 3€.
- Hilak 23:**
Haurrentzako musikala: 'Bazen behin... opera', Opera Divertimento.
17etan. Lobianon.
Sarrera: 3€.
- Hilak 30:**
Magia ikuskizuna: Txan Magoa. 17.00etan.
Lobianon. Sarrera: 3€.

MUSIKA ETA DANTZA

- Hilak 1:**
'Majarambú', Vereá de en medio taldea.
22.15ean. Lobiano Kultur Gunean.
Sarrera: 5€.

BESTELAKOAK

- Hilaren 1etik 3ra:**
Extremadurako VI. Azoka Euskadin: hainbat ekitaldi. Orbe Kardinalaren plazan.
- Hilaren 21etik 24ra:**
Mikologiari buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi.
- Hilak 23:**
Motor-jaia: hainbat ekitaldi.
16.00etatik. Probalekun.
- Hilak 24:**
Mikologiari buruzko erakusketa. 11.00etatik.
Orbe Kardinalaren plazan.

Patxi López

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak
GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA
J. CASADO




Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA


MIGUEL
Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería
TITANIK



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83